

EL GRUPO MUNICIPAL EAJ-PNV DE IRUN PRESENTA LA SIGUIENTE MOCIÓN PARA SU DEBATE Y APROBACIÓN EN EL PLENO A CELEBRAR EL 26 DE ABRIL DE 2019:

Desde hace meses venimos observando y denunciando la incapacidad del Alcalde para buscar acuerdos entre diferentes. Acuerdos imprescindibles para sacar adelante propuestas que permitan avanzar y mejorar a Irun. Pero esa incapacidad para acordar nos condena a la parálisis y al estancamiento. Son proyectos concretos, necesidades detectadas, peticiones ciudadanas concretas las que están congeladas, guardadas en un cajón, porque el Alcalde no quiere, o no es capaz de llegar a acuerdos con ningún otro grupo político.

A día de hoy seguimos en situación de prórroga presupuestaria, aunque, en el pleno de marzo, la mayoría de la corporación aprobó una moción instando al Alcalde a convocar ya el Pleno de Presupuestos. Ante tal situación, los y las miembros del gobierno, se empeñaron en trasladar el mensaje de que la falta de presupuestos era inocua, esto es, no tenía afección y no suponía un problema.

Una prórroga es un mecanismo que permite a una institución mantener la actividad y rematar las inversiones en marcha, no obstante le impide iniciar nada nuevo: ni nuevas inversiones, ni nuevos programas de bienestar social, ni las propuestas ciudadanas de los presupuestos participativos. Es decir, estancamiento y parálisis.

Y no estamos hablando de minucias. En estos momentos, Irun está gestionando un presupuesto prorrogado de 70,5 millones de euros en vez de los 77,5 millones a los que ascendería el presupuesto 2019. Esto son **7 millones** en actuaciones en barrios, mejoras en bienestar social y nuevas inversiones que no estamos llevando a cabo, por la incapacidad del Alcalde de acordar con diferentes. Ha pasado un mes desde la aprobación de la moción y no hay visos de que se quiera iniciar la tramitación de los presupuestos de la ciudad.

Es más, la situación de parálisis se está agravando. Hace unos días se cerró la liquidación del ejercicio 2018 y el Ayuntamiento dispone de **otros 6 o 7 millones** de euros (el importe final se sabrá en los próximos días en función de los créditos de 2018 que se incorporen a 2019).


En otras ciudades de nuestro entorno, los gobiernos municipales ya han anunciado las nuevas actuaciones e inversiones que van a llevar a cabo con ese dinero de los resultados de la liquidación de 2018. Irun, no. El mecanismo para movilizar estos recursos es sencillo y conocido: una modificación de crédito que se apruebe en Pleno.

Es imprescindible acordar y aprobar con el mayor consenso posible de los grupos municipales, una modificación de crédito que permita a Irun movilizar los recursos de los que ya dispone. Una modificación de crédito que refleje la pluralidad de nuestra ciudad y que permita paliar mínimamente, la situación de estancamiento y prórroga presupuestaria que sufre Irun.

Por todo lo anterior, el Pleno acuerda lo siguiente:

- 1. Exigimos al Alcalde que inicie la negociación con los grupos políticos, para poder llevar una propuesta de modificación de crédito al Pleno del próximo mes de mayo, que nos permita aplicar los recursos disponibles tras el cierre de la liquidación del ejercicio 2018.**

Irunen, 2019ko apirilaren 16an



Xabier Iridoy Olaizola
Irungo EAJ-PNV Udal Taldeko Bozeramailea

IRUNGO EAJ-PNV UDAL TALDEAK ONDOKO MOZIOA AURKEZTEN DU 2019KO APIRILAREN 26AN EGINGO DEN OSOKO BILKURAN EZTABAIDATU ETA ONAR DADIN:

Hainbat hilabete daramatzagu ikusten eta salatzen Alkatea ez dela gai ezberdinen artean akordioetara iristeko. Akordio horiek nahitaezkoak dira Irun hobetzeko eta aurrera egiteko proposamenak aurrera atera nahi baditugu. Baina adosteko ezintasun horrek geldirik gauzka, ez aurrera eta ez atzera. Proiektu zehatzak dira, sumatutako beharrak, herritarren eskaera zehatzak, izoztuta daudenak, tiraderan gordeta, Alkateak ez delako beste inolako talde politikorekin akordioetara iritsi nahi edo ez delako akordio horietara iristeko gai.

Gaurko egunean aurrekontu luzapenarekin jarraitzen dugu, nahiz eta martxoako osoko bilkuran udalbatzaren gehiengoak mozio bat onartu zuen Alkateari eskatuz jada deitu dezala Aurrekontuak onartzeko Osoko Bilkura. Egoera horren aurrean, gobernuko kideak ahalegindu dira esaten aurrekonturik ez izatea ez dela kaltegarria, hauxe da, ez duela eraginik eta ez duela inolako arazorik sortzen.

Erakunde bati bere jarduera mantentzeko eta abian dauden inbertsioak azkentzeko aukera ematen dion mekanismoa da luzapena, baina ez du ezer berria hasteko aukerarik ematen: ez inbertsio berririk, ez gizarte ongizateko programa berririk, ez aurrekontu parte hartzaileetan herritarrek egindako proposamenik. Hauxe da, geldialdia eta paralisia.

Eta ez gara txikikeriez ari. Une hauetan 70,5 milioi euroko aurrekontu luzatua kudeatzen ari da Irun, 2019ko aurrekontuak izango lituzkeen 77,5 milioiak izan beharrean. Horiek **7 milioi** dira auzoetan jarduerak egiteko, gizarte ongizatean hobekuntzak egiteko eta inbertsio berriak egiteko, aurrera eramaten ari ez garen inbertsioak, hain zuzen ere, Alkatea ez delako gai ezberdinekin akordioetara iristeko. Hilabetea igaro da mozioa onartu zenetik eta ez du ematen hiriko aurrekontuak tramitatzen hasteko asmorik dagoenik.

Are gehiago, geldialdi egoera okerragotzen ari da. Orain dela egun batzuk itxi zen 2018ko ekitaldiko likidazioa eta Udalak **beste 6 edo 7 milioi** euro ditu (azken zenbatekoa datozen egunetan jakingo dugu 2019an txertatzen diren 2018ko kredituen arabera).

Gure inguruko beste hiri batzuetan, udal gobernuek jada iragarri dute 2018ko likidazioaren emaitzen diru horrekin zein jarduera eta inbertsio berri egin behar dituzten. Irunek ez. Oso erraza eta ezaguna da baliabide horiek mugitzeko bidea: kreditu aldaketa bat, Osoko Bilkuran onartu behar dena.



Ezinbestekoa da kreditu aldaketa bat adostea eta onartzea udal taldeen ahalik eta adostasun handienarekin, Irunek jada dituen bitartekoak mugitu ahal izateko. Kreditu aldaketa bat, gure hiriaren anistasuna islatuko duena eta Irun jasaten ari den aurrekontu geldialdi eta luzapen egoera hori pixka bat bada ere arindu ahal izateko.

Adierazitako guztiagatik, honako erabaki hau hartzen du Udalbatzaren Osoko Bilkurak:

- 1. Alkateari eskatzen diogu talde politikoekin negoziatzen hasteko, datorren maiatzeko Osoko Bilkurara kreditu aldaketa proposamena eraman ahal izateko, eta 2018ko ekitaldiko likidazioa itxi ondoren dauden bitartekoak aplikatu daitezkeen ahalbidetzeko.**

Irunen, 2019ko apirilaren 16an

Xabier Iridoy Olaizola
Irungo EAJ-PNV Udal Taldeko Bozeramailea